Gazte Geografia.	1	2014	p: 53-74	ISSN 2341-3239

EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZA LURREN FUNTSAREN AZTERKETA ETA BALORAPENA

Onartuta:2014-10-08

OIHANE LLORENTE IGLESIAS[1]

Euskalherriko unibertsitatea
oihane.llorente@gmail.com

LABURPENA: Lur Funtsa edo Lur Bankuak hainbat erregioetako nekazaritzaren egoera hobetzeko hartutako ekimenak dira. Espainiako hainbat autonomia erkidegoetan Lur Funtsa programak diseinatu dira, Euskal Autonomi Erkidegokoa bat izanik. Euskal Autonomi Erkidegoan garatutako Lur Funtsa programa Asturias eta batez ere Galizian diseinatutako programetan oinarritu egin da. Momentuz, Lur Funtsa programa arrakastatsua izan da Bizkaia eta Gipuzkoan utzitako lur publikoan. Momentuz lur publikoa bakarrik bideratu da ekimen honetara, lur pribatua lortzea oso zaila suertatzen ari da Lur Funtsa kudeatzen duten erakundeentzat.

RESUMEN: Los Bancos de Suelo o Fondo de Suelo Agrario son iniciativas para mejorar la situación en la que se encuentra el entorno rural de muchas regiones. En España se han diseñado programas de Fondo de Suelo Agrario en diferentes comunidades, siendo el País Vasco una de ellas. El Fondo de Suelo Agrario desarrollado en la Comunidad Autónoma del País Vasco se ha basado fundamentalmente en los proyectos diseñados para Asturias y sobre todo Galicia. Por el momento el Fondo de Suelo Agrario está teniendo éxito en las tierras públicas cedidas en las provincias de Vizcaya y Guipúzcoa. El conseguir tierras privadas para reforzar el Fondo de Suelo está resultando una tarea difícil para las instituciones.

ABSTRACT: Land Banks are initiatives to improve the situation in which there is the rural environment in many regions. In Spain Land Banks programs are designed in different communities, the Basque Country being one of them. The Land Bank program developed in Basque Country has been based primarily on projects designed for Asturias and Galicia. By the time Land Bank program is succeeding on public lands ceded on the provinces of Vizcaya and Guipuzcoa. Getting private land to strengthen the Land Bank is proving a difficult task for the institutions.

1 Tutorea: Juan Cruz Alberdi Collantes Dkt.. EHU Irakaslea.

I. METODOLOGIA.

Euskal Herriko nekazaritza lurren funtsa hasi berria den proiektua denez, hau ezagutzeko eta aztertzeko beste lurraldeetako programak ikasi behar izan ditu eta Euskal Herriko aurrekariak aztertu behar izan ditut. Lan guztia burutzeko honako metodologia erabili dut:

- Beste lurraldeetan emandako lur funtsa edo lur banku programak ikasteko bibliografia eta web guneetatik ateratako informazioa erabili dut. Funtzionatu duten programak edo ereduak ezagutzeko helburuarekin.
- Euskal Herrian nekazaritzaren egoera hobetzeko lur funtsa programa sortu baino lehen garatutako planak aztertzeko legediak eta bibliografia erabili ditut. Atal honetako informazioa *aurrekari* bezala izendatu dut.
- Euskal Herriko nekazaritza lurren funtsaren gaur egungo eredua ikasteko legediak, bibliografia eta web guneetako informazioa erabili dut. Gainera entrebista kualifikatuak burutu ditut Lurren Funtsean lan egiten duten pertsonen ikuspuntua jakiteko, lur funtsaren bitartez lurra lortu duten pertsonen ikuspuntua jakiteko eta baita ere nekazal munduarekin zerikusia duten beste organoen ikuspuntua jakiteko. Guzti honetaz gain landa lanaren bitartez gaur egun funtzionatzen duten eta etorkizunerako planifikatutako lurrak ikusi ditut.

II. ZER DA LUR FUNTSA ETA ZERTARAKO BALIO DU? EREDU EZBERDINDEN AZALPENA.

Orain dela bi edo hiru hamarkada nekazaritzaren egoera hainbat eskualdeetan larriagotu egin da, ez dagoelako nekazari zaharrentzako erreleborik, hainbat kasutan ezin delako bertatik bizi eta hiriaren presioak nekazal lur askorekin bukatu duelako. Egoera hau hobetzeko ekimen asko hartu dira administrazioaren bitartez, bai Espainia mailan eta baita Europa mailan ere (*Alberdi, 2012*).

Ekimen hauetako bat bitarteko zentroak edo lur bankuak izan ziren. Espainia mailan batez ere 80. hamarkadan egiten hasi ziren lurraldearen arabera eredu oso ezberdinak proposatuz (*Cosialls, 2011*). Garai honetan Andaluzia, Aragoi, Extremadura, Asturias eta beste hainbat autonomi erkidegoek haien legedia garatu zuten baina Asturias izan zen benetan funtzionatu zuena eta erreferentzia markatu duena. Lur bankuaren eredu bakoitza bere lurraldeari egokitzen saiatzen da.

Van Dijk eta Kopeva (2006) idazleek lur funtsa edo lur bankua horrela definitzen dute: landa guneen garapen soziala eta hauen nekazaritza indartzeko hainbat probintziek sortutako erakundea. Erakunde honen helburua lurrak birbanatzea da nekazal lur guztiak erabilera bat izateko eta nekazal munduaren egoera hobetzeko.

Nahiz eta hainbat lur funtsa eredu izan gehienetan ezaugarri eta helburu komun batzuk daude:

- Nekazaritzarako baliogarriak diren lurrak balorean sartzea.
- Nekazal azalera erabilgarriaren galera gelditzea.
- Ustiategiek erabilitako lurraldea hobetzea eta handitzea.
- Abandonu egoerak saihestea.
- Nekazal aktibitatea mantentzea nahiz eta jardueraren uztea edo erretiroa eman, beste titular bati ustiategia alokatuz entitate publiko baten bermea izanik.

Ezaugarri komunen artean lur funtsa programa gehienak hartzaile nahiko berdintsuetara bideratuta daude: nekazal azalera handitu nahi duten ustiategientzat eta nekazal jardueran aritu nahi diren gazteentzat.

Lur funtsaren funtzionamenduari dagokionez erronka hau jarraitzen da. Nekazal lurraren jabeak haren lurrak lur bankuan inskribatu ditzake, erakundeak lurra eskatzen duen nekazariaren ezaugarrien arabera modu egokienean ezarriko du lur horren alokairua. Alokairua 5 eta 30 urte bitartekoa izan daiteke. Lur funtsak dituen lurrak lagapen edo erosketaren bitartez lor ditzake eta publikoak zein pribatuak izan daitezke.

1.2. Herrialde eta Autonomi Erkidego ezberdinek garatutako eredua.

Asturias (Maceda, 1996):

Asturiasko lur bankua eta hau kudeatzen duen organoa (Lur Bankuaren Eskualdeko Komisioa) 1989. urtean egindako *Nekazal Antolamendu eta Landa Garapenaren Legearen* babesean sortu ziren.

Asturiasko lur bankuaren gestioa 1992. urtean hasi zen *nekazal jarduera lehenago uztearen programa*ren laguntzarekin. Garai horretan erakundea lurrak biltzen hasi zen, hauek bertako nekazaritza eraberritzera (gazteak mundu honetan sartzen saiatu) eta zeuden ustiategien hobekuntzara bideratuz.

Bere aktibitatea usten duen nekazariak bere lurren azaleraren %10 edo gehienez hektarea bat atxiki dezake, beste guztia lur bankuaren esku utziz. Nekazal jarduera behar baino lehenago uztearen programari esker (Lur Bankuaren Komisioa bereganatu zuena) baldintza batzuk betetzen dituzten nekazariek haien aktibitatea utzi ahal dute diru laguntza bat izanez. Honi esker lurrak uzten dira eta dauden ustiategi edo nekazal berriei alokatzen zaizkie lur bankuaren bitartez.

Asturiasko Lur Bankuan lortutako lur gehienak aurre erretiroaren ondorioz lortu dira. Gobernuak diru asko inbertitu zuen aurre erretiroak ordaintzeko eta gaur egun diru kopuru hori beherantz egin du, ondorioz lur bankuko lurrak behera egin dute. Abandonu egoeran dauden lurretarako neurriak hartu dituzte hauek lur bankura bideratzeko eta berdina egin dute udalenak diren lurrekin. Nahiz eta gorabeherak izan pixkanaka lurrak lortzen ari dira eta Lur Banku proiektua aurrera egiten ari du.

Asturiasko lur bankua oso garrantzitsua izan da eta baita ere besteentzako erreferente bat. Baina Euskal Herrian eragin handiagoa izan duen lur funtsa programa Galiziakoa izan da.

Galizia:

Galiziako lur funtsa egiteko Asturiaskoan oinarritu ziren baina irtenbide ezberdinak bilatu zituzten, ez zuten aurre erretiroen alde egin, ondorioz, lur funtsa programa zeharo ezberdina garatu zuten. Helburuak berdinak ziren baina helburu horiek lortzeko tresna ezberdinak egin zituzten.

Galiziako lur funtsa sortzeko arrazoi nagusia bertako ustiategien egoera zen. Haien azalera handitu nahi duten hainbat nekazal ustiategik ez daukate aukerarik lurrak oso garestiak direlako, alokatzeko lur merkatu egoki bat ez dagoelako eta hainbat lurjabek lurrak galduko dituztela pentsatuz hauek abandonatzea nahiago dutelako.

Arrazoi hau kontuan izanik Galiziako Nekazal Gunearen Kontseilaritzak bertako lur bankua martxan jarri zuen. Galiziako Lur Bankua *7/2007 legea*n sortu zen. 7/2007 Legea 2011. urtean indargabetua suertatu zen urriaren 13an Galiziako Gobernuak sortutako *6/2011 Legea*ren bitartez. Lege hau Lurren Mugimendua bezala izendatu zen eta aldaketa berriak ekarri zituen nekazaritza lurzoruan eta ondorioz lur bankuan. Lehenengo legean lur bankua antolatzeko 3 organo sortu ziren lege berrian mantentzen jarraitu zirenak:

- Bantegal. Lur bankua gestionatzen duen sozietate publikoa.
- OAC. Administrazio eta nekazariaren artean komunikazioa burutzen duen organoa.
- Prezioen Komisioa. Berez ez dago lurrak alokatzeko prezioak finkatzen dituen informaziorik. Komisio honen bitartez alokatzeko prezioak zehazten dira, nekazariarentzat prezio onargarriak izango dira eta lurjabeak ez du diru handirik jasoko baina bere lurra zaindua izango du.

Lurrak lur bankuan sartzeko jabeak lur bankuari eskaria egingo dio bere nekazal lurra inskribatzeko. Entitateak lurra zainduko eta prestatuko du. Lurra prestatzerakoan lur bankuak beste nekazari bati alokatuko dio bertan nekazal jarduera burutzeko. Alokairua printzipioz bost urteetakoa izango da baina denboran luzatu daiteke lurraren jabearen baimena izanik.

Abandonuan dauden lurrak ere kontuan hartzen dira ekimen honetan. Legeak esaten du abandonatua dagoen lurra beste pertsona bati kalteak eragiten badizkio santzio prozedurak eman daitezkeela. Egoera hau saihesteko lur bankuan dauden lurrak ez dira santzionatuko, jendeak haien lurrak bankuan sartzera animatuz (*Alberdi,2012*).

Nahiz eta lurrak lortu Galiziako lur bankuak ez du izan espero zen arrakasta. Lurrak ez dira alokatzen askotan nekazaritzarako baliogarriak ez direlako. Hala ere, nahiko berria den proiektua izanik ezin da oraindik ondorio txar edo onik eman, baina momentuz ez du behar bezala funtzionatzen.

Munduko beste herrialde askotan lur banku programak ere garatu dira, haien artean oso ezberdinak izanik lurraldearen arabera eta bertako nekazaritza ereduen arabera.

Gure lurraldetik hurbilen dagoen lur funtsa eredua Frantzia estatuak garatu duena da. Frantziako lur bankua SAFER erakundeak kudeatzen du (Sociedades de Ordenación de la Tierra y de Instalación Rural, frantsesez, *Sociétés d'Aménagement Foncier et d'Etablissement Rural*).

1960. urteko abuztuan nekazal orientaziorako legearen bitartez SAFER-ak sortu ziren (*Merlet eta Levesque, 2008*). Frantziako estatuak eta nekazal gazteen sindikatuak helburu berdina zuten: Frantziako nekazaritza prestatu Europako merkatu komunean sartzeko.

1962. urtean legea aldatu egin zen, lurren erosketan SAFER-ei lehentasuna emanez. Horrela, estatuak eta nekazal erakundeak lur merkatuaren inguruko erregulazio sistema sortu zuten legedia erabiliz eta honako helburu nagusiak finkatuz:

- Lur jabe zaharren aurre erretiroa bultzatu bizitza guztirako soldatak eskainiz haien lurrak nekazal gazteak landu ahal izateko.
- Nekazal lurren jabetzen merkatua erregulatzea.
- Lur asko zuten ustiategiak lur gehiago erostea debekatu kontzentrazio estentsiboa saihesteko.

SAFER-en eginkizuna horrela laburbildu dezakegu: nekazal egiturak hobetu, ustiategi batzuen azalera edo tamaina handitu, lurraren laborantza erraztu eta nekazarien kokapena erraztu.

Zeregin hori lortzeko SAFER-ak eskumen ezberdinak dituzte, hala nola, lurrak, nekazal ustiategiak eta baso ustiategiak erosi, atzera egin edo aldatu.

Lurrak nekazari ezberdinei egokitzerako momentuan Administrazio Kontseiluak azken erabakia hartuko du. Lurra eskatzen duen nekazariak beharrezkoa den finantziazioa izan beharko du bestela ez du izango lurra lortzeko eskubiderik.

Denborarekin lurraldea antolatzeko tresna bihurtu da. Gaur egun landa guneak, nekazaritza eta basoak garatzearen alde egiten du eta paisaiaren eta ingurugiroaren zainketaren aldeko apustua egiten du. Gainera lurrak erosteko dirua dauka.

III. EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOA.

Aurreko adibideetan ikusi dugun bezala funtzionatu duten lur funtsa programak aurrekontua izan dutenak edo aurre erretiroak bultzatu dituztenak izan dira. Hurrengo puntuetan Euskal Autonomia Erkidegoak bultzatutako eredua aztertuko dugu.

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoan aurretik egindako saiakerak.

Euskal Herriko nekazaritzaren egoera hobetzeko hainbat ekimen burutu dira lur funtsa programa garatu baino lehen. Isurialde atlantikoko bailaretan ustiategi gutxi gelditzen dira, gehienak malda handiko nekazal zonaldeak dira eta hauetan abandonua geroz eta handiagoa da. Gainera bailarak hiriengatik presio handia daukate eta ondorioz bertako nekazaritza eskasa geroz eta gehiago txikitzen joan da hirien hazkundea eman den heinean. Euskal nekazaritzaren beste arazo bat belaunaldi berri baten erreleboaren falta da (*Alberdi, 2012*).

Euskal Herriko nekazal zonaldeetako lur ez erabiliak alokatuak edo utziak izaten dira. Alokairu edo uzte mota hauek ezegonkorrak diren kontratuen bidez egiten dira nekazal jarduera estentsifikatuago bihurtuz eta abandonua handituz.

Egoera honen aurrean Euskal Herrian ekimen ezberdinak hartzen hasi ziren nekazaritza babesteko eta bultzatzeko.

Lur bankuaren programa diseinatu baino lehen Euskal Herriko ekimen garrantzitsuena *Euskal Herriko Nekazal Gazteen Sartze Plana* izan zen. Plan hau 2004. urtean aprobatu egin zen eta nekazaritza bizirik mantentzeko generazio berrien sarrera beharrean oinarritu zen. Planak planteatzen dituen akzioak nekazal berri eta adituak nekazaritzara sartzera bideratzen dira, nekazal mundua gaztearazteko eta nekazaritzaren eraginkortasuna hobetzeko.

Plan hau aurrera eramateko mota ezberdinetako diru laguntzak eskaini ziren baina hau ez zen beharrezko baliabide bakarra. Gazteak nekazaritzara bideratu ahal izateko lurrak behar dira eta Euskal Herriko arazoa lur falta izanik irtenbide ezberdinak bilatzen hasi ziren.

Irtenbide garrantzitsuenak generazioak berritzeko programetan ematen dira. Nekazari zaharrei haren lurrak uzteko laguntzak ematen hasi ziren. Ekimen nabarienak aurre erretiroak sustatzea, nekazariei pentsio fondoei buruzko informazioa ematea edota lurraren gestio mistoa bultzatzea izan zen. Honetaz gain lur publikoen erabilera beharrezkoa zela ikusi zen lur kopurua oso baxua zelako. Mendi publikoak eta herri lurrak gazteei uztea bultzatu zen.

Asturiasen bezala Euskal Herrian nekazal jarduera lehenago uztearen programa bat egin zen. Euskal Herrian ez zuen arrakastarik izan, nekazariak haien aktibitatea uzterakoan lurra haien semeei edo bazkideei ematen zieten ez zuten nahi administrazioak proposatutako planetara egokitu. 2000-2006 urteen artean programa bizirik egon zen eta nekazal gutxi batzuk parte hartu zuten baina oso gutxi izan ziren eta 2006. urtean programarekin bukatu zen.

Gazte Plana porrot egin zuen eta eskala txikiago batean proposatutako proiektuak ere. Garrantzitsuena 2005. urtean Gipuzkoako Diputazioak sortutako Bitartekaritza Bulegoa izan zen, Etorlur izena hartu zuena. Erakunde hau lur pribatuak lortzen saiatu zen eta lurjabe eta nekazarien arteko lur alokairuak bultzatu zituen. Alokatzen ziren lur gehienak egoera agrologiko txarrena zuten lurrak ziren. Honen ondorioz, nahiz eta alokairu gutxi batzuk lortu Etorlul porrot egin zuen.

Planak bideratutako ekimenen artean aurrera egin zuena lur publikoa izan zen. Lur publiko hau baratzagintzara bideratu zen Gipuzkoan garrantzitsuak diren agroaldeak sortuz. Agroaldeak nekazal erabileretarako egokituak dauden lursaila poligonoak dira (berez poligono industrialaren antzeko ideia da baina kasu honetan nekazal aktibitateetara bideratuta) (*Alberdi, 2012*). Agroaldeak herri lurretan garatuak izan ziren eta hauek izan ziren gaur egun arte iraun duten ekimen bakarra. Gipuzkoan garatzen hasi ziren eta gaur egun Bizkaian ere garatu dira “agrogune” izena hartuz.

Ikusi dugun bezala Euskal Herrian aurre erretiroak ez zuten espero zen emaitza lortu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako Etorlur ere ez. Ondorioz beste ekimenak hartzea bultzatu zen lur funtsa programa egokia lortzeko helburuarekin.

3.2. Gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan garatutako eredua.

EAE-n nekazaritza bultzatzea beharrezkoa dela pentsatzen da eta horregatik aurretik azaldutako ekimenak hartu dira.

Euskal Herrian emandako arazoak ematen ziren beste lurraldeetan arreta jarriz (adibidez Galizian) eta haiek hartutako irtenbideak aztertuz nekazaritza lurren funtsa programa egokia lortzeko ahaleginak ematen hasi ziren. Lehenengo helburua erakunde autonomo bat sortzea zen, lur bankua kudeatzeko eta kontrolatzeko. Esan beharra dago Euskal Herriak garatutako legedia galiziarraren antzekoa izan dela arazo nahiko berdintsuak eman direlako bi lurraldeetako nekazal guneetan.

2008. urtean Eusko Jaurlaritzak *Nekazal eta Elikadura Politikaren 17/2008ko Legea* onartu zuen eta hemen lurra kudeatzeko erakundeen sorreraren lehen pausuak ematen hasi ziren. Legearen 14. artikuluan nekazaritza lurren funtsak aipatzen dira. Lurren funtsak sortu dira batetik, titularrak emandako nekazal ustiategiko lurrengatik eta bestetik, negozio juridiko ezberdinak gauzatzetik datozen lurrei lotutako ondasun eta eskubideengatik.

Nekazaritza lurren funtsaren lehentasunezko helburuak 17/2008 Legearen arabera:

- Nekazari gazteak finkatzea.
- Nekazaritza ustiategi berriak sortzea landa exodoa saihesteko.
- Gaur egun funtzionatzen duten ustiategiak handitzea.
- Nekazal nukleoak sortzea bertan nekazaritza jarduerak gauzatzeko.

Lege honen garapena Foru Aldundien esku utzi da. Legeak esandakoa kudeatzeko Nekazal Lurraren Bitartekaritza Bulegoak sortuko direla zehazten du. Bulego hauek lur funtsaren lurrak kudeatuko eta gestionatuko dituzte.

3.3. Foru Aldundi bakoitzak bultzatu duen eredua.

EAEko Foru Aldundi bakoitzak legea aplikatzeko dekretu forala onartu dute 17/2008 Legean agintzen duen bezala.

3.3.1. Bizkaia.

Eusko Jaurlaritzako 17/2008 Legearen ondorioz Bizkaiko Foru Aldundiak *28/2010 Foru Dekretua* egin zuen, *martxoaren 9ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa* sortu zuena.

Lurren funtsa sortzeko arrazoiak aurreko legean aipatutako arrazoien antzekoak dira. Hau da, nekazal lurrak zaintzea eta hobetzea, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak mantentzea eta behar duten ustiategien lur oinarria handitzea, gaur egun egokia ez den nekazal ekoizpenerako lurren alokairurako merkatu ona sortzea, abandonatuak dauden lurrak nekazaritzara bideratzea, gazteak nekazal sektorean sartzea belaunaldi erreleboa mantentzeko, emakumezko eta gizonezko nekazarien artean ezberdintasunak desagertzea eta nekazariak elkarte edo taldeetan biltzea.

Nekazaritza lurren funtsaren funtsezko egin beharra erabiltzen ez diren nekazal lurrak erabilgarri bihurtzea da, horrela nekazal lurren azalera handituko da, eta honen ondorioz hainbat ustiategien tamaina handituko da hauek lehiakorrago bihurtuz.

Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritza lurren funtsaren ondasunak kudeatzeko eta administratzeko Nekazaritza Lurren Bitartekaritza eta Ikuskaritzarako Bulegoa sortu zen 28/2010 Foru Dekretuaren bitartez. Bitartekaritza Bulegoa Bizkaiko Nekazaritza Sailari atxikita dagoen Basalan Akziozko Baltzua S.A-ri egokitu zitzaion.

Lurrak nekazal lurren funtsera bideratzeko Basalan entitatearekin kontaktuan jarri behar da. Herriak eta jabe partikularrek haienak diren nekazal lurrak Basalan erakundeari laga ahal dizkiete lurren kudeaketa eta aprobetxamendua burutzeko. Nekazaritzarako edo abeltzaintzarako lurra erakundeari uzterakoan, erakundeak hirugarren pertsonei laga ahalko die 5 urtez.

Landa lurraren titularrak bere lurra berreskuratu nahi badu Basalanekin hitz egin beharko du. Lurra oraindik beste pertsona bati laga ez bazaio titularrari bueltatuko zaio zuzenean, beste pertsona batek lur hori esleitua badu kontratuaren epea bukatu arte itxaron beharko du titularrak bere lurra berreskuratzeko. Nahiz eta lurra nekazaritza lurren funtsera bideratu lur hori jabearen izena izaten jarraituko du. Lurraren titularrak bere lurra lagatzerakoan Basalan erakundearekin kontratu bat sinatuko du.

a) Bizkaiko Nekazaritza Lurren Funtsean lurra lortzeko ezarritako prozedura eta ezaugarriak.

28/2010 Foru Dekretuaren bitartez zehazten da zer nolako pertsonetara bideratuko diren lurren funtsak dituen landa lurrak:

a) Nekazal gaztea.

b) Nekazal ustiategi berria sortu nahi duen pertsona.

c) Bere nekazal ustiategia handitu nahi duen pertsona.

d) Nekazaritza jarduerak burutzeko landako auzune txikiak edo poligonoak sortu nahi dutenak.

Lurrak aurkeztutako proiektuei edo nekazariei adjudikatzeko, 28/2010 Foru Dekretuan zehazten diren irizpideak jarraitzen dira. Irizpide bakoitza puntuaketa bat dauka, puntuazio gehien dutenen artean lurrak banatu egingo dira. Puntuaketa gehien lortuko duena bere lehen instalazioa sortu nahi duen nekazari gaztea izango da (25 puntu). Beste hainbat irizpide daude 28/2010 Foru Dekretuan azaltzen direnak.

Irizpide guzti hauek kontuan hartuta lurrak esleituko dira. Puntuaketaren arabera preferentzia ordena ezarriko da eta hortik lurrak banatuko dira eskari ezberdinen artean gutxienez 5 urtez eta gehienez 30 urtez.

Behin lurra lortuta nekazariak lurraren alokairua ordaindu behar du. Prezioen eta Balioztatzearen Batzordeak lurren alokairua ezarriko dute. Alokairu hau 300 eta 4000 euroen artean ibiliko da lurraren tamaina, balio agrologikoa, ur hornidura, malda eta erabileraren arabera. Ezarritako prezioak nahiko zentzuzkoak izaten dira, normalean ez dira oso baxuak merkatuan dagoen prezioa baino pixka bat merkeagoak izaten dira.

b) Bizkaiko lurren funtsaren bidez lortutako lurrak.

Bizkaiko nekazaritza lurren funtsa Euskal Herri mailan urte gehien daraman proiektua da, hala ere oso berria da (2011. urtean lehenengo lur lotea esleitu).

Bizkaiko nekazaritza lurren funtsean dauden lur gehienak publikoak dira, kasu batzuetan Foru Aldundiarenak eta beste batzuetan udaletxe ezberdinenak. Lur pribaturen bat dago baina ez da bereizgarria, orokorrean lur publikoak dira guztiak.

Bizkaian lur funtsaren lehenengo lur lotea 2011. urtean eman zen. 7 lur esleitu ziren Bermeo eta Busturiaren arteko Foru Aldundiaren 40 hektareatako lursail batean. Lurrak lortu zituzten 4 nekazariek aurreko esperientziarik gabekoak ziren, beste hirurak nekazaritzan edo abeltzaintzan aurreko esperientzia zuten. Lurren lagapena 4 eta 30 urteen artekoa da proiektuaren arabera (baratzagintza ekologikoa, abeltzaintza, erlezaintza eta hegaztizaintza -oilategi nahiko garrantzitsua-).

Bigarrengo lur lotea urte bat geroago egin zen, 2012. urteko ekainean. Busturia eta Galdames udalerrien artean 6 hektarea lortu ziren eta hauetatik 4 partzela eskaini ziren.

Hirugarrengo lur lotea 2013. urteko otsailean esleitu zen. Lote honetan 16 hektarea 3 partzeletan zatitu ziren Mundaka eta Arrankudiaga udalerrietan (*Astui,2013*).

2013. urteko abenduan 4. lotea aurkeztu zen. Kasu honetan 9 gazteek haien lursaila lortu zuten. Loiu eta Mundaka udalerrien artean 20,4 hektarea banatu ziren.

4. lote honetan Bizkaiko Lehenengo agrogunea sortu zen Loiun. Agrogune kontzeptu hau Gipuzkoako agroaldeen berdina da. Kasu honetan lurrak lortu zituzten 7 gazteek martxan jarri duten proiektua dugu. Beste bi gazteek lortutako lurrak baratzagintzarako eta larretarako erabiliko dira. Loiuko agrogunean baratzagintza, baratzagintza ekologikoa eta barraskilo granja landuko da.

1. irudia: Loiuko Agrogunea (elaborazio propioa)

Aurreko irudian ikusten den bezala oraindik agrogunea prestatzen ari dira. Negutegi batzuk egin dira eta beste batzuk egiteko fasean daude, ura sartzeko obrak egin dira eta oraindik ez dira lurra lantzen hasi.

2014. urteko martxoan Bizkaiko nekazaritza lurren funtseko lurrak eskatzeko epea zabaldu zen urte berdineko ekainaren 30 bukatzen dena. Lur lote honetan 85 hektarea daude 28 partzeletan banatuta eta Bizkaiko lurralde osoan zehar barreiatuta egongo dira lur funtsaren 5. deialdia osatuz.

Partzelak honakoak izango dira (*Bizkaiko Foru Aldundia, 2014*):

- 4 partzela Bilbon, Zeanurin, Urduñan eta Arrigorriagan. Partzela hauek partikularrek lagatakoak dira (orain arte lehenengoak) eta bazka eta larre erabilerak burutuko dira bertan.
- Loiu eta Lezama artean 7 partzela eskaini dira. Partzela hauek bi udaletxeek lagatako lurretatik lortu dira eta baratzagintza edo ortu erabilerak burutuko dira bertan.
- Foru Aldundiak Amorebieta-Etxanon, Lemoan, Berrizen, Zeberion, Busturian eta Galdakaon dituen lurrak Nekazaritza Lurren Funtsera bideratu ditu. Lur hauetan 6 partzela osatu dira bazka eta larre erabileretarako, fruta arbolen erabilerarako eta barraskilo granjak egiteko.
- Azpiegiturak S.A.U Bizkaiko Foru Aldundiaren Elkarte Publikoak 3 partzela laga ditu Amorebieta-Etxanon eta 9 Gatikan. Partzela hauetan baratzagintza eta beste erabilera batzuk garatu ahal izango dira.

Esan beharra dago 5. deialdi honetan Bizkaiko bigarren agrogunea sortuko dela Gatikan (*Barriuso,2014*).

c) Beste adibide ezberdin bat. Zeberio.

Zeberioko udalak landa garapen proiektu berezia garatu du, Bizkaiko nekazaritza lurren funtsaz aparte.

Zeberio tradizioz nekazaria eta abeltzaina izan da baina gaur egun nekazal munduarekiko interes hori galdu da, nekazaritzara bideratuta dauden lurrak %50 jaitsi dira.

Zeberioko proiektua Nekazalgunea izena hartu du. Berez, udalerriko gazteek nekazaritzara bideratzeko eta gaur egungo krisialdiarekin enpleguak eskaintzeko helburuarekin egin dute. Udaletxeak duen arazoa lur falta da, lur eskasak dauzka eta ez dira nekazaritzarako erabilgarriak.

Nekazalgunerako lurrak agindu kontratuen (contrato de mandato) bitartez lortu dituzte.

“Zeberio Haranaren Patroiak, Olabarrietako Santu Tomas SL” elkarteak Ermitabarri auzoan dituen lurrak kontratu horien bitartez kudeatzeko baimena eman dio udaletxeari. Honen ondorioz ia 4Ha-ko Nekazalgunea sortu da.

Lehenengo lur lotea eskaintzeko deialdia 2013. urtearen amaieran izan zen eta bost pertsonatako taldea aurkeztu zen, elkarrekin lan egiteko lurra lortu zutenak.

Lurrak eskaintzeaz gain, 3 etxebizitza eskaintzen dira (denbora mugatu batean) eta produktuen elaboraziorako, kudeaketarako eta eraldaketarako instalazioak ezartzeko lekua eskaintzen da.

Zeberioko gazteek nekazaritzara bideratzeko beste aukerak dauzkate. Lurra eskuratzeko aukera daukate haien familiak lurrak dituztelako edota lurrak dituen norbait ezagutzen dutelako. Horregatik, proiektua udalaz gaindiko jendearentzat zabaldu da.

Orain dela gutxi 2. deialdia egin da. Deialdi honetan 6 proiektu aurkeztu dira baina arazoa lur falta izan da. 6 proiektuetatik bik lurra lortu dute eta 3. bat ia emanda dago baina besteentzako lurrik ez daukate. Udaletxearen asmoa lur gehiago lortzea da ahalik eta jende gehienari lurra eskaintzeko.

Zeberioko udalak bere nekazal eredu zehatza bultzatu nahi zuen eta lurrak banatzerako orduan haien irizpideak ezarri nahi zituen. Lur funtsak ez zuen hori onartzen eta udaletxeak haren konpetentziak galtzen zituen. Ondorioz, udaletxeak bere proiektua garatu du eta lurrak esleitzeko prozedura jarri du. Lur funtsa politikatik baliatu dira lurren alokairua zehazterako orduan.

d) Balorazioa entrebisten bitartez.

Bizkaiko nekazaritza lurren funtsarekin erlazionatuta dagoen jendearen ikuspuntua ezagutzeko eta informazio gehiago lortzeko entrebista kualifikatuak egin ditut.

- **Bizkaiko nekazaritza lurren funtsa kudeatzen duen Nekazaritzarako**

  Bitartekaritza Bulegoaren (Basalan) Koordinatzailea.

Basalan erakundea 1988. urtean sortu zen, Foru Aldundiaren barneko erakunde publikoa da eta baso eta aisialdiko lekuak gestionatzen ditu. Foru Dekretuaren ondorioz, 2010. urtetik aurrera lurren funtsa ere kudeatzen du.

Basalan erakundeak Eskualdeko Nekazaritza Bulegoekin (OCA erdararaz) lan egiten du nekazaritza lurren funtsa programa aurrera ateratzeko. Eskualdeko Nekazaritza Bulegoak nekazal lurrak lurren funtsera bideratzen saiatzen dira. Nekazariak edo abeltzainak edozein arazoa dutenean bulego hauetara joaten dira, hauetan kontaktu zuzena ematen baita. Bulegoetan lur pribatu lurren funtsera bideratu nahi duen jabea ezagutzen dutenean Basalan erakundearekin kontaktuan jartzen dira eta honek egiten du beharrezko prozedura guztia.

Eskualdeko Nekazaritza Bulegoez gain Bizkaiko lurren funtsa kudeatzen duen Basalan erakundea Landa Garapenerako Elkarteekin lan egiten du. Elkarte hauek Bizkaiko nekazal guneetan bizi kalitate egokia egoteko behar diren zerbitzuak lortzen lan egiten dute eta lurrak nekazaritzarako prestatzen dituzte.

Nekazaritzarako edo abeltzaintzarako lur bat lur funtsera bideratu nahi denean Basalan erakundeak txosten bat egin behar du lurraren ezaugarriak kontuan harturik, lurra baliogarria denean eta hainbat lur lortzen direnean deialdiak zabaltzen dira.

Lurra eskatzen duen jendea normalean jende gaztea izaten da derrigorrez *Gaztenek* (EAEko nekazari eta gazteentzako plana) erakundearen barneko kideak izan behar direnak. Gainera, gaztea izanda puntu gehiago lortzen dira lurren esleipenean. Aurkeztutako proiektu gehienak baratzagintza eta baratzagintza ekologikoaren arloan izaten dira. Baratzaren arloan UTA (unidad de trabajo agrario) bat lortzeko 5000m^2 behar dira, aldiz, negutegiak izanik 2000m^{2}ekin balio du.

Bizkaiko nekazaritza lurren funtsean lur gehienak publikoak izan dira baina badago pribatuek lagatako lurraren bat, nahiz eta oso gutxi izan. Normalean jabe pribatuek lurrak lagatzen dituztenean kontratuak 5 urteko epeaz sinatzen dituzte ez dute denbora luzerako utzi nahi, askotan ez dira administrazioaz fidatzen.

Gutxi erabilitako edo abandonatuak dauden lurrak lurren funtsera bideratzearen alde dago baina bere ustez oso saila da hori lortzea, lur horietako jabeek lurra kenduko dietela ikusten dutenean lurrak erabiltzen hasten direlako (nahiz eta gero berriro utzi).

Bere ustez lortutako emaitzak onak izan dira eta etorkizunean nekazaritza eta lur funtsa elkarrekin joango dira. Nekazaritza kontserbatzearen alde dago, lurrak eta paisaiak ez galtzeko eta gure kulturaren nortasuna delako.

- **Ehne Bizkaia nekazal sindikatuan lan egiten duen langilea.**

Aurreko deialdietan lur gutxi lortu direla eta ondorioz nekazal berri gutxik haien lurra lortu dutela salatzen dute. Aldiz, 5. deialdian eskaintzen diren 85Hak (28 partzela) kopuru nabarmengarria direla pentsatzen dute, gainera Bizkaiko Lurralde Historiko osoan zehar banatuta daudenez baserritar gehiago egongo dira lurralde osoan zehar, tokiko komertzioa indar gehiago hartuko du eta lurren espekulazioa murriztuko da eskualde guztietan.

Instituzioek abeltzaintza eta nekazaritza bultzatzen ez badute ezinezkoa da eredu berria lortzea, honetaz gain goraipatzekoa da hainbat baserritarren elkarteek egindako lana nekazaritza eta abeltzaintzaren egoera mantentzeko eta hobetzeko. Ehne-rentzat oso garrantzitsua da erretiratzen diren baserritarren lurren kontrola burutzea instituzioen aldetik

(batez ere udaletxeetatik), abandonua saihesteko eta beste nekazari batek lur horiek erabiltzeko aukera izateko.

Oso argi uzten du haien lurrak erabiltzen ari diren nekazariei ezin zaiela lur hori kendu beste bati emateko. Puntu hau azpimarratzen dute Petronor Enpresak (Muskizen kokatuta) haren lur batzuk lur funtsera bideratu nahi dituelako eta kasu honetan lur horiek beste nekazari batzuek erabiltzen ari direlako.

- **ENBA, baserritar profesionalen aldizkariak Bizkaiko Nekazaritza Lurren Funtsari buruz egiten duen balorazioa (2014. urteko udaberria).**

Aldizkariaren ustez 2011. urtetik nekazaritza lurren funtsaren bitartez egindako lana oso ona izan da. Nekazal gazteek nekazal mundura sartzen laguntzeaz gain Foru Aldundia eta udaletxeen arteko lankidetza ematea lortu du Bizkaiko nekazal lurra zaintzeko eta sustatzeko.

Bizkaiko 20 gazte baino gehiago nekazal lur batera heltzeko aukera izan dute lur funtsaren bitartez, ez da oso zifra aipagarria baina lur funtsa proiektu barik sarbide hau askoz ere zailagoa izango zela pentsatzen dute.

Haientzako Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoa oso handia izaten ari da, ez dira bakarrik inplikatzen haien lana delako baizik eta sektorea garrantzitsua delako. Agroguneen aldeko apustua egitea aipatzen dute artikuluan horren ondorioz nekazaritza jendearentzako deigarriago bihurtzen delako.

- **Loiun barraskiloen hazkuntzarako granja sortuko duen produktorea.**

2. irudia: Loiko Agrogunean barraskilo granja (elaborazio propioa)

Bertako produktoreak lurra aurten lortu du eta oraindik barraskiloak gordetzeko lekua prestatzen ari dira. Diru laguntzak jaso ditu eraikina egiteko, administrazioaren bitartez eta familiaren bitartez.

Bere ustez gaur egungo egoera ikusita gazteentzako irtenbide baliogarria da lur funtsa. Lurra lortzen duzu prezio nahiko onean eta zure proiektua garatzeko aukera duzu.

Produktore gaztea da, aurretik beste lanak izan ditu baina epe laburrekoak ziren, ondorioz proiektu hau aurkeztu zuen.

Aurten obra guztiak bukatuko ditu eta datorren urtean barraskiloak sartuko ditu. Barraskilo handiak sartuko ditu eta barraskiloak hazteko beste leku bat prestatuko du.

Biltzeko epea heltzen denean hauek bildu eta salduko ditu.

3.3.2. Gipuzkoa.

Eusko Jaurlaritzako 17/2008 Legeari jarraituz Gipuzkoako Lurralde Historikoak bere nekazaritza lurren funtsa ere sortu zuen. Gipuzkoa Bizkaia baino beranduago egin zuen, *2013ko martxoaren 5eko 10/2013 Foru Dekretua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa arautzekoa*.

Nekazal lurren arazoa Gipuzkoan Bizkaikoa eta beste nekazal guneen antzekoa da. Foru Dekretuan aipatzen da nabarmena izan dela azken urteetan Gipuzkoako nekazaritza lurrak eta nekazal ustiategiak izan duten beherakada. Nekazal lurrak babestuta ez daudela esaten da eta beste erabileren ondorioz emandako lurraren presioa asko oztopatzen duela nekazal lurrak lortzea. Beste arazo larria jardueraren baztertzea da eta horregatik beharrezkoa ikusten dute belaunaldi aldaketa bat ematea, nekazaritza azalera bermatzeko.

Foru dekretuaren helburu nagusiena nekazaritza lurrak babestea da eta hauek nekazaritzara bideratuko direla bermatzea. Nekazaritzarako lur erabilgarriak babestuko dira eta ez galtzeko neurriak hartuko dira, erabiltzen ez diren nekazaritzarako lurrak eskainiko dira hauen erabilgarritasuna lortzeko, ustiategi berriak martxan jartzen saiatuko dira eta dauden ustiategien zabalkuntza bermatuko da hauen egoera hobetzeko. Nekazal lurrak lurren funtsean sartuta helburu hauek ahal den heinean beteko dira.

17/2008 Legeak esaten duen bezala lurren funtsen ondasunak kudeatzeko eta administratzeko Nekazaritza Lurren Bitartekaritza Bulegoa sortu da nekazaritza arloan eskumena duen foru departamentuari lotua dagoena. Gipuzkoako kasuan Bitartekaritza Bulegoak egin behar dituen jarduerak Foru Aldundiko Nekazaritza sailetik egiten dira ez dago aparteko erakunde bat.

Nekazaritza lurren funtsean Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazal lurrak sartuko dira publikoak zein pribatuak. Lur guzti hauen datuak zentralizatu egingo dira (Bitartekaritza Bulegoan) eta edozein pertsonarako eskuragarri egongo dira.

Lurren funtsean sartuko diren lurrak nekazari gazteak finkatzeko, nekazaritza ustiategi berriak sortzeko, nekazaritza ustiategiak handitzeko edo agroaldeak sortzeko erabiliko dira.

Aurretik esan dudan bezala, nekazaritzaren lurren funtsa kudeatzeko Nekazaritza Lurren Bitartekaritza Bulegoa erabiliko da. Kudeatzeaz gain, lurren alokairu zerbitzua eskainiko dute, landa lursailak borondatez edota nahitaez trukatzeko erraztasunak eman beharko ditu eta gutxi erabiltzen diren nekazal lurren jarraipena egin beharko du.

Nekazal lurren funtsaren lurrak herri erakundeek zein herritarrek eska dezakete Gipuzkoako Foru Aldundian edo zuzenean Nekazaritza Lurren Bitartekaritza Bulegoan. Lurrak lurren funtsean aldez aurretik erregistratuak daudenean Bitartekaritza Bulegoak lursailaren titularrarekin eta lurra eskatzen duenaren arteko bitartekari lanak egingo ditu lurraren erabilera eta aprobetxamendua lagatzeko. Lurra hasiera batean 5 urtez alokatuko da, epe hau luzatu daiteke lurraren titularra eta lurra lortu duenaren arteko akordioa ematen bada. Nekazal lurraren titularra aurre erretirorako laguntzak jasotzen baditu eta bere lurrak lurren funtsera bideratzen baditu gutxienez 10 urtez eskainiko da lur hori.

Lurraren titularra bere lurra nekazaritza lurren funtsean erregistratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko nekazaritza arlo eskudunarekin kontratua egin beharko du. Kontratuan edo hitzarmenean alde bakoitzaren betebeharrak ezarriko dira eta baita kontratua apurtzearen kasuan gertatuko litekeena.

a) **Gipuzkoako Nekazaritza Lurren Funtsean lurra lortzeko** ezarritako prozedura eta ezaugarriak.

Nekazaritza lurren funtsean lur kopuru garrantzitsua erregistratuta dagoenean hirugarren pertsonek lurrak lortzeko deialdia zabaltzen da. Deialdia eta esleipena Nekazaritza Lurren Bitartekaritza Bulegoak egingo ditu. Deialdia amaitzen denean lurrak eskatzen dutenen artean honako prozedura jarraituko da esleipena egiteko:

- Esleipen eskaerarekin batera eskuratu nahi den lursaila, lursailari eman nahi zaion erabilera eta lursaila zenbat denborarako nahi den aurkeztu beharko da.
- Eskaera guztiak daudenean bi hilabeteko epean ebatziko dira.
- Lursaila bat lortzeko eskaera bat baino gehiago ematen badira honako irizpideak aplikatuko dira eta puntuaziorik altuena duena preferentzia izango du. Puntuazio altuenak honakoak dira (*10/2013 Foru Dekretua, Gipuzkoa*):
    - Nekazari profesionalak: 35 puntu.
    - Nekazal ustiategi berria sortuko duena Gizarte Segurantzako erregimenean alta emateko konpromisoa badauka: 35 puntu.

Lurren funtsean sartutako lurraren alokairuaren prezioa Foru Aldundiko nekazaritza arlo eskudunak ezarritakoa izango da lurraren jabea eta lurra lortu duenaren artean akordiorik ez badago. Lursailaren titularrak bere lurra lurren funtsetik atera nahi badu eta hirugarren pertsona bati esleitu ez bazaio ez da arazorik egongo. Hirugarren pertsona batek lurra erabiltzen badago epea bukatu arte itxaron beharko du jabeak.

b) Gipuzkoako Nekazaritza Lurren Funtsaren bidez lortutako lurrak.

Proiektu honetan alokatu diren nekazal lur guztiak publikoak dira. Udaletxeak edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurrak izan dira lur funtsera bideratu direnak. Gipuzkoan ematen ari den azpiegitura handien eraikuntzaren ondorioz soberan gelditu diren lur asko lur funtsera ere bideratu dira, batez ere Bidegi-ren (Gipuzkoako Foru Aldundiak bertako errepide sarea egiteko sortu duen erakundea) obretatik eta AHT-ren (Abiadura Handiko Trena) obretatik soberan gelditu diren lurrak.

Gipuzkoan aurretik azaldu dudan Gazte Planaren ondorioz agroaldeak egiten hasi ziren, gaur egun oso garrantzitsuak izaten jarraitzen dute.

- **Lezo, Urrullo baserriaren inguruan egindako agroaldea.**

2013. urteko abenduan Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Ekogunea eta Behemendi Landa Garapenerako Elkartearen arteko hitzarmenaren ondorioz sortu zen Lezoko agroaldea, Urrullo baserriaren inguruan dauden lurretan. Lezoko urbanizagarri ezina den eremuan kokatuta dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurrak dira. Lur hauek Pasaiko Superportura bideratuta daude, balio estrategiko handiko lurrak dira baina gaur egun Foru Aldundiak ez du ia etekinik ateratzen. Horregatik nekazaritzara bideratzea erabaki zuten bertatik jendea bizi ahal izateko helburuarekin.

Hitzarmenari esker 102.820 m^2-ko azalera duen lursaila nekazal aktibitatera bideratu zen. Proiektuaren bitartez 5 pertsonetarako hektarea bana izango duten baratzak sortu dira. Lur bakoitzak ur hornidura izateko obrak egin dira eta bertara ailegatzeko bidea egokitu da.

3. irudia: Lezoko Agroaldearen parte bat (elaborazio propioa)

Gipuzkoan agroaldeen funtzionamendua egokia dela ikusita eta bertako eskaera geroz eta gehiago handitzen ari dela ikusita lur funtsak beste proiektu bat diseinatu du Antondegi mendixkan. Antondegi Donostiako Martutene auzoaren barnean dagoen mendixka da. Bertako lurrak Donostiako udaletxearen plangintzan hazkuntzarako gune bezala kalifikatu dira. Bere orografia ez da egokia, berez altuera txikiko mendia da baina bertan etxebizitzak egiteko obra nahiko garestiak eta zailak behar dira. Gaur egun nahiko geldiarazita gelditu da bertako etxebizitza garapena ondorioz, Gipuzkoako nekazaritza lurren funtsa agroalde proiektu berria planifikatu du bertan, Behemendi Landa Garapenerako Elkartearekin lan eginez.



4. irudia: Antondegi-ko egoera gaur egun (elaborazio propioa)



5. irudia: Antondegi agroaldearen kokapena. Iturria: https://www.google.es/maps/@43.2969492,-1.9805781,5319m/data=!3m1!1e3

c) Beste kasu bat. Hondarribi.

Gipuzkoan sortu den beste agroaldea Hondarribikoa dugu. 2013. urtean Hondarribiko udalak nekazaritzari buruzko ikastaroa eskaini zuen. Udaletxeak babes ofizialeko etxebizitzak egiteko zuen partzela batean agroaldea egitea erabaki zuen. Krisiaren ondorioz partzela horretan ez zen inolako erabilerarik ematen, ondorioz nekazaritzara bideratzea erabaki zuen (*Diario Vasco, 2013*).

Kasu honetan, agroaldea ez da Foru Aldundiko lurretan egin baizik eta udaletxe baten lurretan.

Momentuz lurrak 4 urtez esleituko dira baina 4 urteak igaro ondoren partzeletan inolako proiekturik aurkezten ez bada epe hauek luzatzeko aukera egongo da (urtez urte). agroalde berri hau Hondarribiko Bottika baserriaren inguruko lurretan kokatuta dago.

Lur hauek kudeatzeko Hondarribiko udalak Behemendi Landa Garapenerako elkartea aukeratu du. Lurrak 5000m^2-ko azalera dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ematen duten laguntzak lortzeko lur kopuru minimoa delako. Guztira hiru partzela atera dira.



6. irudia: Hondarribiko Agroaldea. Iturria: http://antxetamedia.info/recordings/programs/2014-01-08-aitzurra/

d) Balorazioa entrebisten bitartez.

Gipuzkoako nekazaritza lurren funtsaren inguruan lan egiten duten pertsonen ikuspuntua ezagutzeko entrebista kualifikatu ezberdinak egin ditut.

- **Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsaren arduraduna.**

Gipuzkoako lurren funtsaren kuaketa eramaten du. Bere ustez aurrean sortutako Etorlur enpresa publikoak nekazaritzan egindako saiakerak eta proposamenak ez zuten arrakastarik izan. Horregatik lurren funtsa egiterakoan Foru Aldundiari kudeaketa esleitu zitzaion.

Lurren funtsean kontratuak egiterakoan (Diputazioa eta lurra eskatzen duenaren artean) alokairua ordaintzen da. Lurren alokairua eta kudeaketa Foru Aldundiaren barneko organoa egiten duenez (nekazaritza sailaren barnean lurren funtsa) kontrol gehiago ematen da eta prozedura zehatzagoak ezarri dira Foru Dekretuaren bitartez.

Gehienetan Foru Aldundiaren lurren funtsean Eskualdeko Nekazaritza Bulegoekin eta Landa Garapenerako Elkarteekin lan egiten dute. Landa Garapenerako Elkarteak nekazal guneen egoera hobetzen lan egiten dute. Bertan bizi den jendeari zerbitzu eskaintza egokia eskaintzeko lanak egiten dituzte administrazioarekin kolaboratuz.

Bere kargua ez da nekazariekin zuzenean harremanetan egotea, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoek eta Landa Garapenerako Elkarteak lurrak nekazaritza lurren funtsera bideratu nahi dituen nekazaria ezagutzen dutenean Foru Aldundiarekin hitz egiten dute tramitazioa egiteko.

Bere ustez erabiltzen ez den lurzoru publikoa nekazaritzara bideratzea eta egokitzea irtenbide oso ona da, horrela nekazaritzan lanpostu berriak sortu ahal direlako. Azpiegitura handien obrek sortutako lurren soberakinak lur funtsera bideratu behar direla defendatzen du.

Oso argi utzi zuen ez direla aisialdirako baratzak, lur horiek lortzeko proiektu egokiak aurkeztu behar direla eta bertan lana egiteko prest egon behar direla.

Bere ustez lur funtsa eta agroaldeen arteko filosofia oso berdintsua da. Lur funtsera lurrak bideratzen direnean Diputazioak eta Landa Garapenerako Elkarteak lurrak prestatu eta egokitzen dituzte agroaldea edo nekazal lursail berria sortuz.

Gipuzkoako nekazaritza lurren funtsetik produktoreei haien lurra ondo mantentzeko laguntza eskaintzen zaie.

Bere ustez nekazal lurrak erabili behar dira nahiz eta lurren funtsaren barnean ez egon. Lurren eskaria oso handia da eta horregatik bertan lan egiten jarraitu behar dutela bultzatzen du.

Lur funtsaren eta nekazaritzaren etorkizunari dagokienez bere ustez lur gutxi daude, azpiegiturek lur osoa “jan” dutelako. Gaur egun baserrien egoera oso txarra dela pentsatzen du baina lurren funtsa indartuz orokorrean nekazaritzaren egoera hobetzea lortu daitekeela defendatzen du.

Bere ustez nekazaritza lurren funtsa ibilbide luzeko proiektua da, pixkanaka indarra hartzea lortu behar da. Etorkizuna lurraren inguruko politikek baldintzatuko dute, baina lurrak lortzeko presio gehiago egin behar da ekimen honen bitartez emaitza onak lortu direlako eta eskaria geroz eta handiago delako.

- **Behemendi Landa Garapen Elkarteko arduraduna.**

Behemendi Donostialdea eta Bidasoa eskualdeak hartzen dituen Landa Garapen Elkartea da. Behemendi Foru Aldundiarekin koordinatuta dago lur funtsa bultzatzeko asmoarekin (Foru Aldundiak emandako diruarekin lan egiten dute) 2013. urtetik.

Behemendi elkarteak nekazariei lurra lortzen laguntzen die. Salmenta taldeak eta haien ekoizpena nola bideratzen erakusten diete. Tokiko jendearekin eta baserritarren elkarteekin harremanetan jartzen dira nekazari berrien egoeraz informatzeko eta haien arteko loturak ezartzeko asmoarekin. Azkenik, supermerkatu handiekin negoziazioak egiten dituzte nekazari berrien ekoizpena bertan saltzeko.

Lur funtsera lurra eskatzera doan jendearen profilari buruz normalean jende gaztea dela esan zuen. Haien artean badaude batzuk aurretik nekazaritzan aritu direnak eta beste batzuk hasi berriak direnak. Alokatutako lurretan gehien ematen diren erabilerak baratzagintza eta baratzagintza ekologikoa izan dira.

Gipuzkoako nekazaritza lurren funtsera bideratutako lur guztiak publikoak dira Foru Aldundiarenak, udaletxeenak edo azpiegitura handien enpresa publikoenak. Lur pribaturik ez dago eta bere ustez hau lortzeko forma berriak pentsatzen hasi behar dira lur publikoen muga hori gainditzeko.

Nahiz eta proiektua denbora gutxi izan eskaera asko egon dira, 2013. urtean deialdia irekin zenean eskaintzen ziren lurren bikoitzerako eskariak egon ziren.

Bere ustez nekazaritza ez da gaur egun sektore estrategikoa, gure gizartean ez da hain garrantzitsua. Udal plangintzak edo lurraldean orokorrean plangintzak egiten direnean nekazal guneak erreserba gune bezala kontsideratzen dira.

Hala ere, nekazaritza lurren funtsa proiektuan etorkizuna ikusten du. Gaur egun jendea konturatzen ari da nekazaritzatik bizi daitekeela, ondorioz nekazaritzaren inguruko interesa handitzen ari da. Gainera, lur funtsa inbertsio handirik gabe egin daiteken proiektua dela uste du.

- **Lezoko agroaldean lurra lortu duen produktorea.**

Produktorea gizona da eta baratza ekologikoa lantzen du. Orain dela urte batzuk langabezian geratu zen eta agroekologiako kurtsoak egiten hasi zen. Lurra 2013. urteko urrian esleitu zioten. Saldutako produktuekin hilabetean bertatik bizitzeko soldata bat lortu du. Produktoreak kontsumo taldea erabiltzen du bere produktuak saltzeko. Sasoiko produktuen saskiak saltzen ditu hilero 70€-ren truke.

Lortutako esperientziari esker gaur egun beste jendea laguntzen du nekazaritza ekologikoaren gaietan sartzera, hitzaldiak ematen ditu gai honetan interesa duen jendeari.

Bere nahia lur gehiago lortzea da bere produkzioa handitu ahal izateko eta beste produktuak ere lantzeko (arrautza ekologikoak, fruta arbolak eta barazkiak), baina momentuz ez dauka lur gehiago lortzeko aukerarik.

Bere ustez instituzioek laguntza gehiago eskaini ahal dute sektore honetan aritzen direnei. Instituzioen esku dagoen publizitatea egitea eskatzen du.

- **Biolur Elkarteko arduraduna.**

Biolur Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren alde lan egiten duen elkartea da. 1993. urtean sortu zen eta baserritarrez osatuta dago.

Bere ustez nekazaritzaren egoera Gipuzkoan gaur egun txarra da, oso sektore ahula da eta ez dauka izan beharko lukeen tokia gure gizartean. Gainera, gure lurraldearen orografia eta baldintza zailen ondorioz gure nekazaritza konpetitiboa ez dela uste du.

Hala ere, azken urteetan aldaketa bat ematen ari dela ikusten du, jendeak lurra gehiago baloratzen hasi dela pentsatzen du.

Nekazaritza gure elikaduran, osasunean, paisaian eta kulturan garrantzi handia duen sektorea dela uste du, horregatik balio hauek gizarteari jakinarazi behar zaizkie.

Lur funtsaren aldekoa da. Lur funtsaren bitartez lurrik gabeko pertsonei nekazaritza jarduera bat garatzeko aukera eman zaie, askotan haien ogibidea bihurtuz. Bere ustez lur funtsa eta baserrietako jarduerak berreskuratzeko egiten ari diren ekimenak elkarrekin lotuta joan beharko dute garapen egokia lortzeko. Lur funtsera lur emankorrak eta egokiak bideratu behar dira, errenta ekonomikoki bideragarriak eskatu behar dira eta epe onargarriak eman behar dira (10 urtetik gorakoak).

- **Kaiku-ko Presidentea eta aldi berean Gipuzkoan esne behiak dituen baserritarra.**

Gipuzkoako lur funtsaren bitartez sortzen ari den eredua bere ustez ez doa ondo bere sektoreari dagokionez, eta honen gainetik dagoen lur politika ez da egokia gure lurraldearentzako.

Bera lan egiten duen sektorearentzako lur falta dago eta gainera lur asko behar da esne behientzako. Bere ustez dagoen lurra ez da ondo erabiltzen eta bere sektorean ezagupenak dituen pertsona izanik lur gehiago eskatzen du udaletxe eta administrazio organo ezberdinei.

2.3.3. Araba.

Eusko Jaurlaritzak egindako 17/2008 Legearen ondorioz Arabako Lurralde Historikoak bere nekazaritza lurren funtsa programa sortu zuen. Programa hau kudeatzeko *Aldalur Araba S.L.* erakunde publikoa sortu zuen 2009. urteko apirilaren 7an.

Aldalur erakundeak lurrak erosteko, saltzeko eta alokatzeko eskubidea izango du Foru Aldundiaren diruaz baliatuz. Lur funtsaren bitartez nekazal lurren abandonua saihestuko da, nekazari berriei nekazal mundura sartzen lagunduko zaie eta dauden nekazal ustiategiak handitzeko laguntza eskainiko da.

Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren bitartez Aldalur erakunde publikoa eta ondorioz nekazaritza lurren funtsa sortu zuen baina orain arte ez da ezer gehiago egin. Ez dira lur loteen deialdiak atera ezta inolako emaitzarik lortu. Bertan behera gelditu den proiektua dela esan dezakegu.

IV. ONDORIOAK. NONDIK JOAN BEHAR DA EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZA LURREN FUNTSEN EREDUA?

Bizkaia eta Gipuzkoako ereduak nahiko antzekoak dira, sektorean dauden arazoak oso berdintsuak direlako eta orografia eta lurraldearen ezaugarriak ere oso antzekoak direlako. Arabako kasuan, aurrean aipatu dudan bezala lur funtsa kudeatzeko erakundea sortu da baina momentuz ez da inolako ekimenik egin.

Bizkaia eta Gipuzkoako kasuan lur pribatuen eskasia dugu arazo larria. Bizkaiko kasuan lur pribatu gutxi batzuk lortu dira baina Gipuzkoan oraindik ezer. Arazo hau saihesteko abandonu bidean dauden lur pribatuak lur funtsera bideratzea ezinbestekoa dugu, zuzenean lurra erabili gabe badago beste norbait erabiltzeko aukera izateko. Gai honekin erlazionatuta dagoen beste arazo larria jabe pribatuek administrazioarekiko duten konfiantza falta da. Kasu honetan Eskualdeetako Nekazaritza Bulegoetatik jabe hauekin hitz egiten saiatu behar da bere lurrak beste nekazari bati aprobetxatzen uzteko. Lur funtsaren bitartez egin daiteke edo bestela haien arteko akordio batera helduz baina gutxienez lurrak behar dituzten nekazariek lurra lortzeko aukera izateko.

Bizkaian eta Gipuzkoan lurzoru publikoa bultzatzen jarraitu behar da, gaur egungo krisialdiarekin hirien hazkundea garatzeko dauden lurrak erabiltzen ez badira nekazaritza lurren funtsera bideratzeko lana egin behar da. Askotan lur hauek denbora luzea ematen dute inolako erabilerarik izan gabe, lur hauek nekazaritzarako prestatzea ez da zaila, diru gutxirekin pertsona batek nekazal jarduera burutu dezake eta bertatik bizitzeko dirua lortu dezake.

Aurretik aipatu dudan bezala Bizkaia eta Gipuzkoako nekazaritza lurren funtsean eman den lur erabilera edo produkzio ohikoena baratzagintza eta batez ere baratzagintza ekologikoa izan da. Instituzioek produktoreei haien produktuak saltzen lagundu behar diete, askotan

nahiz eta kontsumo taldeen bidez saldu arren ez delako nahikoa. Gipuzkoako produktore batek eskatzen zuen laguntza hau areagotzea, instituzioek tokiko supermerkatuetan produktu hauek saltzeko ahalegin handiagoa egin behar dute. Honetaz gain, jendeak ez dauka produktu hauen inolako informaziorik eta gaur egun janari ekologikoa garrantzi handiagoa duenez produktu hauen promozioa areagotu behar da. Hiriko jende asko ez daki produktu hauen existentziaz, hirietan batez ere barazki hauen erosketa sustatu behar da azoketan, supermerkatuetan edo produktoreekin zuzenean hitz egiteko aukerak emanez. Ikastetxeetan produktu hauek erosteko promozioa egin behar da, umeentzat elikadura osasuntsua bultzatuz eta horrela haiei produktu hauei buruzko kontzientzia sortuz.

Aurreko paragrafoan aipatu dudan bezala lur funtsean emandako produkzio gehiena baratzagintzarekin lotura dauka. Abeltzaintzarekin zerikusia duten ustiategiak oso eskasak dira nekazal lurren funtsean Bizkaian eta baita ere Gipuzkoan. Baratzagintzaren muga hau gainditzako lan egin behar dute abeltzainei bazkarako lur gehiago eskainiz eta produktu ezberdinei aukera emanez.

Gipuzkoan eta baita ere Bizkaian lur gehiago lortu behar dira udaletxeekin hitz eginez eta baita ere jabe pribatuak kontzientziatuz. Bizkaiko kasuan, aurten ospatutako 5. deialdian lur kopuru dezente lortu dira eta hau goraipatzekoa da pixkanaka Lur funtsaren proiektu honetan etorkizuna ikusten delako. Gipuzkoan lur kopuru gutxiago daude baina lurraren eskaria geroz eta handiagoa da. Lur gehiago lortzeko ahalegina egiten jarraitu behar dute nekazaritza bultzatuz eta jendearentzako enpleguak sortuz.

Orokorrean bi probintzietan egindako lana oso baliogarria da, kontuan hartuz hiriak sortzen duen presioa geroz eta handiagoa dela. Lurren kokapena aztertuz, ikusi daiteke Gipuzkoako kasuan hiri handietatik hurbil dauden guneak direla eta hau nahiko garrantzitsua da eraikuntzak egiteko dagoen presioa ikusita. Bizkaiko kasuan ohiko nekazal guneetan lurrak eskaini dira baina baita ere hiri handien inguruan.

Administrazioak proiektu honetan lan egiten jarraitu behar du eta nire ustez etorkizunean nekazaritza, lur funtsa eta hein txiki batean abeltzaintza elkarrekin joango dira. Bizkaia eta Gipuzkoan nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak geroz eta murriztuagoak dira eta lur funtsaren bidez ikusi da jarduera hauek gizartean garrantzia dutela eta badagoela sektore honetan lan egin nahi duen jendea.

VI. AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA.

ALBERDI, J.C. (2005): <<Jóvenes agricultores: perspectivas, planes de dinamización y dificultades de instalación en el País Vasco.>> *Papeles de Geografía nº41-42.5-28*

ALBERDI, J.C. (2012): <<Centros de Gestión de Suelo Agrario en el País Vasco: la propiedad pública, la única movilizada.>> *Boletín de la AGE 2012 (inprimatzen)*

ASTUI, I. (2013): <<Mundaka cede al Fondo de Suelo Agrario dieciséis hectáreas en Mape-Makatzaga.>> 07-03-2013. Web gunea (2014-05-11): http://goo.gl/oZ8UWi

BARRIUSO, G. (2014): <<La Diputación oferta 85 hectáreas de suelo agrario.>> Sábado, 8 de Marzo de 2014. Web gunea (2014-06-3): http://goo.gl/Wge75f

Bizkaiko Foru Aldundiaren 28/2010 FORU DEKRETUA, martxoaren 9ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa sortu duena. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 51. zk. Asteartea, 2010eko martxoak 16. 7339 - 7352. orr.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (2014): <<Aldundiak landa garapeneko elkarteei proposatu die lurren bankurako lurren bitartekaritzan lagundu dezala.>> Bizkaimedia. Osteguna, 2014eko apirilaren 10. Web gunea (2014-05-10): http://goo.gl/GWLGvT

COSIALLS, A.M. (2011): *Gestión de tierras rurales por entes públicos.* Granada. Arg: Comares, S.L.

DIARIO VASCO (2013): <<El Ayuntamiento cede terrenos para potenciar el sector primario.>> Hondarribia, 17-12-13. Web gunea (2014-06-5): http://goo.gl/yFKyxa

LEY 7/2007, de 21 de mayo, de medidas administrativas y tributarias para la conservación de la superficie agraria útil y del Banco de Tierras de Galicia. Diario Oficial de Galicia nº 104, de 31 de Mayo de 2007. Web gunea (2014-03-19): http://goo.gl/LZOR74

LEY 6/2011, de 13 de octubre, de movilidad de tierras. Diario Oficial de Galicia, nº 205, Miércoles, 26 de octubre de 2011. Pág. 31387

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2013ko martxoaren 5eko 10/2013 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtsa arautzekoa. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 53. zk. 2013ko martxoaren 18. 2-13. orr.

MACEDA, A. (1996): <<El Banco de Tierras de Asturias, con especial referencia a su gestión de los programas de cese anticipado de la actividad agraria.>> *Ería: Revista cuatrimestral de geografía, 39, p. 151-160 (1996)*

MERLET, M. eta LEVESQUE, R. (2008): <<La SAFER, un mecanismo original de regulación de los mercados de tierra por las organizaciones campesinas y el Estado en Francia.>> 2008. urteko maiatzaren 22. Web gunea (2014-06-12): http://goo.gl/OsxKCe

VAN DIJK, T. eta KOPEVA, D. (2006): Land Banking and Central Europe: future relevance, current initiatives, Western European past experience. *Land Use Policy, nº26, 286-301. 17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa*.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 250. zk. Asteazkena, 2008ko abenduak 31. 32659 - 32727 orr.